

HOBETZERO
PROPOSAMENAK

Hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostena

Consejo Escolar del Estado
2006/2007 ikasturtea



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA SOCIAL Y DEPORTE



CONSEJO
ESCOLAR
DEL ESTADO

NOTA: El Consejo Escolar del Estado agradece al Consejo Escolar de Euskadi su inestimable ayuda en la traducción realizada de las *Propuestas de Mejora* en la lengua cooficial propia, que fueron aprobadas en lengua castellana por el Pleno del Consejo.



MINISTERIO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA SOCIAL Y DEPORTE
Consejo Escolar del Estado

Edita:

© SECRETARÍA GENERAL TÉCNICA
Subdirección General de Información y Publicaciones

Catálogo de publicaciones del MEPSYD
<http://www.mepsyd.es/>
Catálogo general de publicaciones oficiales
www.060.es

Fecha de edición: 2008
NIPO.: 660-08-109-6

Depósito Legal: M-36739-2008
Imprime: Artes Gráficas Rupem S. Coop.

▪ Aurkezpena	3
▪ Hobetze Proposamenak.....	11
0. Orokorrak.....	11
1. Haur Hezkuntza.....	12
2. Lehen Hezkuntza.....	14
3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	18
4. Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.....	21
5. Etorkizunaren lehentasuna: hezkuntzan (gastua) inbertitzea	23
6. Bizikidetza	24

AURKEZPENA

Estatuko Eskola Kontseilua unibertsitatez kanpoko irakaskuntzari buruzko konsultak egiteko eta parte hartzeko erakunde gorena da eta hezkuntza programatzeko konpromiso zuzenena duten arloak hartzen ditu barne. Estatuko Eskola Kontseiluak *Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko Txostena* ikasturtero egiten du.

2008ko ekainaren 26an lehenbiziko aldiz Kontseiluaren Batzarrarekin bat egin zuten 17 Autonomia Erkidegoko Eskola Kontseiluen Lehendakariekin, herrietako erakundeen ordezkariekin eta emakumezkoen erakunde esanguratsuenen ordezkariekin. Bilera horretan *2006/2007. Ikasturteko Espainiako Hezkuntza Sistemaren egoerari buruzko Txosten* onetsi zuten. Uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak, Hezkuntzarako eskubidea arautzen duenak, Estatuko Eskola Kontseilua eratu zuen eta agindu zion ikasturte bakoitzari buruzko txosten bat egiteko, onesteko eta argitaratzeko; hori agindu zutenetik txosten hauxe da lehen txostena.

Txosten horren egitura hobetzen saiatu da, alde batetik, aurreko txostenetako datu eta ñabarduren aberastasuna ez galtzeko, eta bestetik, arauen aldaketek, gizarte bilakaerak eta hezkuntza-komunitateko arloek adierazitako planteamenduek eskatzen dutena ere gehitzeko. Lehenengoz Batzarrak onetsi dituen Hezkuntza Administrazioei egiteko hobetze proposamenak bai gaztelaniaz bai Estatuko hizkuntza ofizialean argitaratuko dira. Horrela, hedadura handiagoa izatea eta erakunde horretako hezkuntza komunitatearen eragin instituzionala handiagoa izatea espero dugu.

Ikasturte honi buruzko *Txostenak* lau atal nagusi ditu:

- *I. Atalean* 2006/2007. ikasturteko gertakari nabarmenenak aztertzen dira. Gertakari horien artean nagusi izan dira Hezkuntza Lege Organikoaren garapena eta Europar Batasuneko Estatu kideek 2010rako jarri dituzten helburuak lortzeko hainbat neurri ezartzea: sistemaren berdintasuna indartzea eta ikasketen kalitatea hobetzea.

- *II. Atalean* gure sistemaren sei alderdi garrantzitsuenak agertzen dira, eta nazioarte sistemekin parekatzen dira. Atal bakoitzean azaltzen dira Eskola

Kontseiluak estimatzen duen Hezkuntza Administrazioei egin behar dizkie hobetze proposamenak. Kasu horretan atal bakoitzeko proposamenak bostera murriztu dira argitasun eta eraginkortasun gehiago lortu nahian.

- *III. Atalak* estatistikak eta dokumentazio guzta biltzen du. Informazioa antolatzeko aurreko ikasturteen epigrafeen egitura mantendu du, datuak aurkitzea eta konparatzea errazagoa izan dadin. Lehenengo aldiz Ceuta eta Melillari buruzko berariazko atala dauka *Txostenak*.
- *IV. Atalean* Kontseiluak onartutako bestelako hobetze proposamenak adierazten dira: bai hezkuntza sistemaren alderdi orokorreko buruzkoak bai II. ataleko aukeratutako gaietan hartu ez diren hainbat alderdiko buruzkoak.

Goian deskribatutako atalei dagozkien informazio guzta paperezko argitalpenarekin batera doan CD batean sartu da. Erakundean parte hartu duten sektore eta erakunde guztien ikuspegi guztiak biltzen saiatu da, uste baitugu adostasuna lortzea garrantzia eransten diola.

2006/2007. Ikasturteko hezkuntza sistemaren egoerari buruzko Txostenetarikoa arretaz irakurri ondoren, uste dugu gehienak ados egon daitezkelo emaitzak.

Bai Herri Administrazioek bai hezkuntza komunitateko arlo ezberdinek egindako ahaleginak ugari izan dira eta horrexegatik alderdi askotan aurrerapen nabarmena egon da. Estatuko Eskola Kontseiluak nagusitzat hartzen dituen Spainako hezkuntzaren arazoak zeintzuk diren esan behar die. Beraz, Estatuko agintariei lehentasuneko arreta eman diezaieten eskatu behar die; ahaleginak eta baliabide egokiak erabiltzea, arazoak eraginkortasunez konpontzeko, baloratzeko eta hartutako neurrien jarraipena egiteko, Hezkuntza Administrazio guztien elkarlanarekin.

Arazo horiei behar bezala aurre egiteko, ezinbestekoa nahiz luzaezinagoa da hezkuntzan egiten diren inbertsioak eta haien eragina nabarmen handitzea, baita kostuen jarraipena egitea ere, zehaztasuneko eta ikuskatzeko irizpideak erabilita. Kontseiluak behin eta berriz aldarrikatu du urteroko txostenetan BPGaren %7 hezkuntzarako erabiltzeko, edo gutxienez, Europako batez bestekoa lortzeko eta are gehiago, batez besteko hori gainditzeko. Berehalako premia da eskoletako instalazioak eta ekipamendua hobetzea, eta horrekin batera, gure hezkuntza

sistemak jarri dituen erronkei erantzun egokia ematea. Hezkuntza da Estatu baten inbertsiorik onena.

Era berean, irakaskuntza aintzat hartza gizartean indartzeko eta irakasleen oinarritzko gaitasunak garatzeko, hasierako eta etengabeko prestakuntzak hezkuntza sistemaren kalitatea hobetu behar du. Hezkuntza sistemaren kalitatea irakasleen kalitatearekin bat dator, hein handi batean.

II. Atalean jorratzen diren gaietan lotuta, aurkitu diren gabeziak eta proposatzen diren irtenbideak behean adierazten den bezala laburbil daitezke:

1. Aukera berdinak sustatzeko Haur Hezkuntzaren hezkuntza-izaera.

Nazio eta nazioarteko ikerketa eta azterlanek hainbat aldiz esan dute eskolatze goiztiarrari esker ikasleek etekin hobeak ateratzen dituztela, bereziki familiek maila kultural, sozial eta ekonomiko urria badaukate. Laburbilduz, eskolatze goiztiarra baliabide eraginkorra da berdintasuna lortzeko eta eskolaren porrota ekiditeko. ELOk 0 urtetik 6 urterako etaparen hezkuntza-izaera arautzen du eta bi ziklotan zatitzen du. Dena dela, Haur Hezkuntzaren Lehenengo Zikloan egin ahal diren arautzeak beronen kalterako edo hezkuntza-izaeraren kalterako izan daitezke. Etaparen lehenengo zikloko eskolatze eskasak jatorrizko baldintza soziokulturalak konpentsatu baino larriagotuko lituzke.

Horrelakorik gerta ez dadin, Hezkuntza Administrazioek Haur Hezkuntzaren Lehenengo Zikloaren hezkuntza-izaera sustatu behar dute Bigarren Ziklora igarotzeko loturarekin batera eta horretarako eskatu ere, guztiak gutxienezko kalitate-eskakizunak betetzea. Eskakizun horiek hezkuntza izaeraren helburuak bete behar dituzte.

2. Hezkuntzaren lehentasunak: Irakurtzeko gaitasuna hobetzea eta hizkuntzak ikastea.

Azken PISA Txostenak arazo konplexu handia dugula utzi du agerian, hau da, beste Europar Batasuneko beste nerabeei gertatzen zaien bezala, geure

gizarteko nerabeek ere irakurtzeko zaitasunak dituzte: aztertzeko, erlazionatzeko, ondorioak ateratzeko...zaitasunak..

Hortaz, premiazkoa da ELOn Lehen Hezkuntzarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako proposatzen diren irakurketa sustatzeko neurriak zehazki garatzea eta ezartzea. Irakurtzeko gaitasuna sustatzea ere, oinarrizko gaitasunen artean oinarrizkoena, irakasgai guztiak irakasle guztien erantzukizuna da. Beharrezko neurri zuzentzaileak hartzeko, Kontseiluak eskatzen dio Hezkuntza Ministerioari sistematikoki azter ditzan curriculumak biltzen dituen oinarrizko gaitasunen egoera eta aurrerapena, bereziki irakurtzeko gaitasunarenak; Ebaluatzenko Erakundearren laguntzaz eta nazioarteko eta diagnostikoaren ebaluazioek emandako datuak aztertuz.

Bestalde, XXI. Mendeko herritarren etengabeko heziketa areagotu nahi bada, hizkuntzak ikasi behar dira. Hizkuntzak haurtzaroaren lehenengo urtetik ikastea sustatu beharra dago, eta halaber, atzerrian ikasteko diru laguntza gehiago eman; curriculum elebidunen esperientziak zabaldu, eta batik bat, irakasleei hizkuntzak menderatzeko hasierako eta etengabeko heziketa bermatu.

3. Eskolara ez agertze goiztiarra: gure hezkuntza sistemaren ahulezia.

Titulurik gabe DBH bukatzen duen edo bukatu baino lehen DBH uzten duen ikasleen kopurua %30ekoa da, eta hori jasanezina da gure hezkuntza sisteman. Arazo hori are larriagoa da gizonezkoen artean. Europar Batasuneko Estatu eta Autonomia Erkidegoen artean alde handiak egon arren, orokorrean zaila da alde hori hobetzea, behintzat 2010erako Europak eta Spainak ezarritako helburuekin.

Ezbairik gabe, hori da Spainako hezkuntzak aurre egin behar dion erronka nagusia. Irtenbidea emateko abian jarri behar dira hainbat mekanismo: ELOk ezartzen dituen konpentsazio-neurriak indartu behar dira; behar den tokietan irakasle/ikasle ratioak murriztu; Lehen Hezkuntzatik laguntza eta erreforztu goiztiarrak ahalbidetu; ahalegin eta lan kulturaren bidez motibazioa piztu; eta oro har, diagnostikoaren ebaluazioen emaitzak aintzat hartuta, behar diren egoeretan neurriak hartu.

Nahiz eta konpentsazio-neurri guztiak erabili, DBHko azken helburua den DBHko graduatua lortu ez duten ikasleentzat, Administrazioek ahalegin handiena egin behar dute haien sarrera bermatzeko ikastetxeetako Hasierako Lanbide Heziketa Programetara. Horrela, herritar guztiekin lortuko dute gutxienez Programa baten egiaztagiria eta horrek Erdi Mailako Berariazko Lanbide Heziketaren ikasketak burutzea ahalbidetuko die .

4. Eskaintza gehitzea eta derrigorrezko ondorengo irakaskuntzen malgutasun handiagoa.

Goiko Mailako Irakaskuntzan 18 eta 24 urte bitarteko gazte tituludunen tasa komenigarritik oso urrun gaude eta horrek gero eta arazo gehiago dakarzkio gero eta lehiakorragoan dagoen egungo gizarteari. Beraz, Autonomia Erkidegoen arteko ezberdintasunak zorrotz ikertu behar dira litezkeen arrazoiekin batera; legeriak ezartzen dituen formulen funtzionamendua eta egokitasuna ere aztertu behar dira, eta azkenik, datuen bilakaera zorrotz aztertu behar da. Premiazkoa da Administrazioek neurriak hartzea Batxilergoa ikasten duten ikasleen beherakada gelditzeko eta Erdi Mailako eta Goi Mailako Zikloetan izena eman duten ikasleen kopurua handitzeko. Horrela, Europar Batasunak proposatu duen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondorengo heziketan %85 tituludun izateko helburua lortuko litzateke. Eskolara ez agertzea zenbat eta gehiago murriztu, orduan eta hurbilago egongo gara helburu horretatik.

Horretarako, ezinbestekotzat hartzen dugu derrigorrezko ondorengo irakaskuntzen eskaintza malguagoa izatea. Ildo horretatik jarraituz, lanean hasi diren 20 urte baino gutxiagoko ikasleek goiko ikaskuntzak egiteko aukera izan dezaten, ikasketek lanarekin bateragarriak izan behar dute. Gainera, ikasketa horiek interesgarriak izango lirateke bai gazteentzat bai enpresarentzat. Era berean, Bigarren Aukerako Ikastetxeen eskaintza handitu behar da, adinez nagusikoentzat errazagoa izan dadin titulua lortzea.

5. Egungo Eskolako integrazioa, etorkizuneko gizarte kohesioaren bermea.

Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan daudenak edo hezkuntza sistemara berandu sartu direnak (ikasle atzerritarrok) toki eta ikastetxe jakin batzuetan eskolatzen dira; horrek ondorio txarrak dakartha ikastetxe batzuentzat eta seguru asko, gizarteratzea kaltetzen du. Bai Estatuko Eskola Kontseiluak bai Arartekoak zentzuzko eskolatzea proposatzen dute gizarteratzea eta irakaskuntzaren kalitatea oztopatzen dituzten ghettoak saihesteko. Biek ere konpentsazio-neurriak proposatzen dituzte ikasle horiek dituzten hezkuntzako aukerak hobetzeko. Dena den, hori guztia bakarrik lortuko da ikastetxeei giza baliabide eta baliabide material nahiko ematen bazaie, eta halaber, hartutako neurrien eraginkortasuna aztertzen bada, hobekuntzak gehituta behar denean.

6. Hezkuntzaren oinarria: elkarbizitzen ikastea.

Hezkuntza Administrazioek gertutik aztertu behar dute ikastetxeetako biziakidetzaren bilakaera, ikastetxeak herritartasun eskolak izan daitezen; elkarbizitza barik ez baitago hezkuntzarik. Eskolako bizitza asaldatzen duten gatazkak eraginkortasunez saihestea ez da nahikoa, elkarbizitzeko printzipioak eta ohiturak ere irakatsi behar dira: arauen garapena, erantzukizuna, errespetua eta elkartasuna. Horretarako, eskolako eremuan sortzen den aukera paregabeara da, bertan inplikatutako eragileekin batera garatzen direlako escola eremua arautzen duten arauak.

Kontseiluak edozein indarkeri motari uko egiteko Hitzarmena argitaratu zuen 2007ko urtarrilaren 27an. Egun Biziakidetzaren Behatokiari eskatzen dio baloratzeko zenbaterainoko eragina izan duten egindako analisiek eta proposamenek eskolako elkarbizitza hobetzeko eta eraginkorrapak izan diren esperientziak zabal ditzan: bi irakasleen arteko tutoretza (tutoretza partekatua) eta gatazketan egindako bitartekotza, esate baterako. Halaber, Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Neurrien Lege Organikoak biltzen ditu hezkuntza-sisteman hartu beharreko neurriak bizkortzea eta gehitzea garrantzitsua da ikasleen ikaskuntza bateratua hobetzeko.

Hezkuntza komunitateari eta gizarteari aurkezten diegun diagnostiko hau zuzena izatea espero dugu eta halaber, geure hezkuntza-sisteman daukagun konfiantzari

guztiok eustea. Kontseiluak premiaz eskatzen die Estatuko Agintariei, Autonomia Erkidegoei, Instituzioei, Erakundeei eta gizarteari orokorrean, bakoitzari dagokion erantzukizunaren arabera, behar diren ahaleginak ez murriztea berdintasunezko kalitatezko hezkuntza lortu arte. Guztien ekarpenak bilduz, Hezkuntzari *lehentasuna* ematea da modu bakarra geure gazteak Europako heziketarik handiena eta hoherena dutenen artean izateko.

Egokia iruditu zaigu *Hobetze Proposamenak* Autonomia bakoitzean argitaratzea, interesa duten sektoreen artean hobeto heda daitezen. Hala ere, *Txosten* luzeago baten parte direla kontuan izan behar dugu, eta *Txosten* hori konsultatu beharko da esanahi osoa lortu nahi izanez gero.

Espero dugu argitalpen honen hausnarketak geure hezkuntza sistema aurrera eramateko onuragarriak izatea.

*Carmen Maestro Martín
Presidenta del Consejo Escolar del Estado*

HOBETZE PROPOSAMENAK

0. Orokorrak

- 1)** Estatuko Eskola Kontseiluaren arabera, Eskola Publikoak Estatu espanyarreko hezkuntza sistemaren ardatz nagusia izan behar du. Eskola Publikoa herri eta hiri, auzo eta herrixka guztietan dagoen eskola da, bertara ESTATUKO ikasle gehienak etortzen dira, eta bertan Derrigorrezko Hezkuntza elkarbizitzeko etapa izaten da ikasle berdinen eta ezberdinaren artean, elkarrenganako errespetua balioesteko etapa, baita ezberdinak direnak ezagutu eta estimatzeko ere. Bizikidetza hori dela eta, etapa horrek garapen demokratikoa lagunten du gero eta askotarikoagoa, ezberdinagoa eta anitzagoa den gizartean. Eskola Publikoa, ESTATUKO ikasle gehienek Derrigorrezko Hezkuntzaren ikasketak egiten dituzten eskola da. ESTATUKO Eskola da agintari publikoek indartu behar dutena, Eskola Kontseiluaren iritziz.
- 2)** ESTATUKO Eskola Kontseiluak Hezkuntza Administrazioari eskatzen dio marko bat bilatzeko, Iurrealde nazionalean hezkuntza sistema baliozkoa, eraginkorra eta iraunkorra bermatuko duen ESTATUKO hitzarmena, akordioa edo konpromisu instituzionala onartzen duena; hezkuntza sistema, hezkuntza publikoa eta irakasleen lan baldintzak hobetzea funtsezkoa baita.
- 3)** ESTATUKO Eskola Kontseiluak Hezkuntza Administrazioei eskatzen die neurriak harritzaten honako printzipio hauetan sakontzeko: inklusioa, aukera berdintasuna eta irisgarritasun unibertsala ikastetxe eta hezkuntza ingurune guztietara, curriculumera, informaziora eta komunikaziora; horrek ziurtatuko du ikasle ezinduek behar duten arreta jasoko dutela. Beste neurri batzuen artean honako hauek lehenetsi behar dira: ezgaitasuna duten hezkuntza beharrak goiz hautematea, etapa batetik bestera igarotzeko behar diren hezkuntza laguntena eta orientabide psikopedagogikoak aurreikustea eta hornitzea eta halaber, ikasleek ondorengo derrigorrezko hezkuntza hezkuntza sisteman jarrai dezaten. Horrez gain, kontuan izan behar dira hezkuntza-premia berezia duten ikasleekin lan egiten duten irakasleak motibatzea, haien gaitasunak eguneratzea eta ordutegiaren malgutasuna.

- 4)** Estatuko Eskola Kontseiluak Gobernuari eskatzen dio Vatikano Hiriko Estatuarekin egindako Konkodartua azter dezan, Erlilio ikasgaia hezkuntza curriculumean ager ez dadin.
- 5)** Estatuko Eskola Kontseiluak Hezkuntza Administrazioei gomendatzen die edozein sexu diskriminazio saihest dezaten ikastetxeetan.

1. Haur Hezkuntza

1) Europar Batasunak 2010erako ezarri dituen helburuak lortzeko, Hezkuntza Administrazioei eskatzen zaie umeen eskolatze tasa Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloan ehuneko ehunekoa izatea, eta Haur Hezkuntzako Lehenengo Zikloan eskolatzea sustatzea. Familiei jakinarazi beharko dizkiete adin horretako umeak eskolaratzeak dituen onurak. Baliabide gutxiko gizarte sektoreetako ikasleak bereziki eskolatu behar dira, eskolatze goiztiarra funtsezko faktorea delako hasierako atzerabideak konpensatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da eskola publikoan kalitzazteko plaza nahiko eratzea eta indarrean dagoen Autonomia Erkidegoen finantzaketaren ereduan biztanleriaren irizpidea eguneratzea. Hori guztia lor daiteke Eskola Publikoen sarea Autonomia Erkidego guztieta eratuta eta sendotuta. Autonomia Erkidegoetako ikastetxeek eta Herri Administrazio ikastetxeek osatuko dute sare hori; gainera, sistemaren kalitatearen ardatz nagusia eta erreferente eztaba daezina izan behar du.

Etaparen hezkuntza helburuak lortzea errezagoa izan dadin, 0 urtetik 3 urtera arteko zikloak hezkuntza administrazioen menpe egon behar du, baita oraindik horrela egin ez den Autonomia Erkidegoetan ere.

2) 0 urtetik 3 urtera arteko eskolatzea laguntzeko Hezkuntza Administrazioei proposatzen zaie haien heziketa programazioaren barruan, Haur Hezkuntzako lehenengo ziklorako gastu publikoa nabarmen handitzea, Hezkuntza Berriztatzeko Programa Nazionalean ezarritako xedeak 2010ean errealitate bihurtzeko. Bestalde, hori guztia lortu behar da sistemaren derrigorrezko mailek behar duten finantzaketei kalte egin gabe.

Estatuko Eskola Kontseiluak Hezkuntza Ministerioari eta Hezkuntza Administrazioei eskatzen die behar diren giza baliabide eta bitarteko material guztiak erabiltzeko ikasle etorkin guztiak Haur Hezkuntzan eskolatzeko, horiei gizarteratzea errazagoa gerta dakin.

Estatuko Eskola Kontseiluak eskatzen zaie Hezkuntza Administrazioei eskolako lanpostu nahiko eskaintzea, ahal den neurrian doakoak.

3) Hezkuntza Administrazioei gomendatzen zaie Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan doako plazak sortu nahi dituzten herri batzuekin lankidetzako neurriak irmo sustatzea. Horrek umeentzat ona izateaz gain, gurasoen lana eta familiaren bizitza bateragarri egiten lagunduko du. Neurri horiekin batera, seme-alabak ikastetxe pribatuetan eskolatzea erabaki duten familiei ere lagundi behar zaie, eta halaber hitzarmenak sinatu behar dira irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuekin. Era horretan, Haur Hezkuntzako erantzuna emango zaio lehenengo zikloko familia guztien hezkuntza eskariari.

4) Ume batzuek arazoak izaten ditzute Haur Hezkuntzako azken ikasturtekit Lehen Hezkuntzako lehenengo kurtsora igarotzean, bi etapen arteko ezberdintasunak direla eta. Hortaz, Hezkuntza Administrazioei proposatzen zaie igarotzeko berariazko planak garatzeko, eta ikastetxeei honako hau eskatzeo: Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik Lehen Hezkuntzako lehenengo ikasturterea igarotzeko ekintza koordinatuak antolatzea, arreta berezia ematea familiek parte har dezaten, batez ere ikastetxe batetik besterako aldaketa gertatu denean, eta nolanahi ere aurreko etapako helburuak lortu direla ziurtatzeko mekanismoak izatea.

5) Estatuko Eskola Kontseiluak Autonomia Erkidegoen Hezkuntza Administrazioei eta Estatuko Hezkuntza Administrazioari proposatzen die elkarrekin aritzea plan bateratu bat eratzeko, hau da, *Haur Hezkuntzako Plan Berezia*, Hezkuntza Arloko Batzarrean. Plan horrek aintzat hartu beharko du etaparen hezkuntza izaera, Lehenengo zikloan gutxienezko eskakizunak ezarriko ditu eta ikastetxe guztiak bete beharko dituzte. Profesionalen titulu akademikoak eta etengabeko heziketa bilduko ditu, eta behar diren orientabideak emango ditu profesionalek haien proposamen pedagogikoa egin dezaten, Hezkuntza Lege Organikoaren arabera. Planak oinarrizko gaitasunak, helburuak lortzeko egutegia eta finantzaketa aintzat hartuko ditu.

Era berean, igaropena eta banakako jarraipena laguntzeko asmoz, Administrazioei eskatzen zaie mekanismoak ezartzeko taldeari buruzko edo ikasle bakoitzaren ikasketa-historialari buruzko informazioa hartu eta emateko, beti ere informazio horren konfidalitziatasuna eta Datuen Babeserako Legea errespetatuz. Haur Hezkuntzako kalitatea eta arreta bermatzeko, administrazioei eskatzen diegu Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloko ratioak murrizteko eta ikasgela bakoitzean 15 ikasle gehienez egoteko. Ratio hori txikiagoa izango da hezkuntza-premia berezia duten ikasleak eskolatuz gero.

Estatuko Eskola Kontseiluarentzat premiazkoa da Haur Hezkuntzan sartzea informazio eta komunikazio teknologia berriak eta hizkuntza atzerritar bat. Halaber, hizkuntzak haurtaroko lehenengo urteean ikastea oso garrantzitsua dela eta, Hezkuntza Administrazioei honako hau gomendatzen zaie: Haur Hezkuntzako irakasleek hizkuntza atzerritarrak menperatzea eta hizkuntza horiek nola irakatsi ere ikastea, ikastetxetako ikasgeletan eta liburutegietan liburu eta material multimediac edukitzea, eta protokolo bat sinatzea haur hezkuntzan atzerriko telebista saio egokiak jatorrizko bertsioan emateko.

Era berean, Estatuko Eskola Kontseiluak Autonomia Erkidegoetako Hezkuntza Administrazioei proposatzen die Heziketa Fisikoa eta Musika adituak esleitzea lehenengo urtetatik, mugimendua, erritmoa eta keinua lantzen hasteko. Halaber, arreta berezia behar duten ikasleak dituzten Haur Hezkuntzako ikastetxeetan laguntzako irakasle gehiago eskaintza, ikasleek behar duten arreta jasotzeko; halaber, behar adina neurri administratibo eta eratzaile hartu behar dituzte, diru publikoarekin ordaindutako ikastetxe guztietan irakasle-eskolako unitate bakoitzeko ratio bera eta hezkuntza orientabideko taldeak berak izateko.

Haur Eskolan hezkuntza baliabide eta baliabide materialek duten garrantzia dela eta, etapa horretako ekipamendua ikastetxeetan bereziki zaintza gomendatzen da, materialak curriculuma garatzeko eta adin horietako beharrei egokituta.

2. Lehen Hezkuntza

- 1) Estatuko Eskola Kontseiluak antzeman du ikasleek, hasieran egokitzeko zailtasunak izaten dituztela Haur Hezkuntzako azken ikasturteetik Lehen Hezkuntzako

lehenengo ikasturtera igarotzean. Era berean, ikasle batzuek arazoak izaten dituzte Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara joatean. Hortaz, Hezkuntza Administrazioei gomendatzen zaie ahalegin handiagoak egiteko etapa batetik bestera igarotzea errazagoa izan dadin, maila horietako irakasleen arteko koodinazio programa egokien bitartez. Programa horiek etapen arteko koherentzia hobetu beharko dute; abiapuntu izango dituzte Haur Hezkuntzako azken Proposamen Pedagokioa eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko Proposamen Pedagokikoak. Bi zikloen artean egindako prozesuei beti lehentasuna emanez, hezkuntza laguntzaren premia bereziak arintzeko bailabideak aurreikusi eta hornituko dituzte.

2) Ikasle askok bukatzen dute Derrigorrezko Hezkuntza eta ez dituzte ulertzen irakurtzen dituzten testuak, eta halaber, ahozko eta idatzizko adierazpen eskasa izaten dute. Egoera horrek neurriak hartzera behartzen gaitu: irakurtzeko ohitura eta irakurtzeko gaitasuna areagotzea gure hezkuntza sistemaren premia larria da. Premia horri erantzuna emateko asmoz, Hezkuntza Administrazioei eskatzen zaie berariazko plan bat garatzea. Plan horrek hezkuntza-premia bereziak laguntzeko bailabideak aurreikusi eta hornituko ditu eta Lehen Hezkuntzatik hasita, etapa guztietai egunero irakurtzeko denbora ezarriko du, legeak arautzen duenaren arabera. Plan horren bidez arreta berezia emango zaio irakurketari honako ekintza hauek sustatuz curriculumeko ikasgai eta arlo guztietai, lehen urtetik hasita, irakurtzeko gogoa pizteko ekintzak, literatur tailerrak eta Derrigorrezko Hezkuntza osoan zehar irakurtzeko ekimenak, gurasoekiko elkarlana, eta egokia bada, ikasgelako materialak egitea eta zabaltzea ikasleentzako bai irakasleentzako irakurtzeko prozedura eraginkorrei buruz.

Hezkuntza Administrazioei proposatzen zaie ikastetxe guztietai faboratzea egunero formatu eta euskarri ezberdinako testuak irakurtzen eta idazten denbora ematea. Horrez gain, beharrezkoa izango da eskola liburutegiek instalazio egokiak izatea, langile espezializatuek zaindu beharko dituzte eta bailabide nahiko izan beharko dute, bai informazio eta komunikazio teknologia berriak ere. Gainera, Administrazioek bidea eman beharko liekete ikasgela eta eskola liburutegiak aprobetzatzeko, erabiltzeko, hornitzeko eta hobetzeko balio duten egitasmo guztiei, esate baterako, paperezko argitalpenak eta argitalpen digitalak, hartzeko eta emateko foruak edo irakurleentzako gune birtualak. Herri Batzakin elkarlanean aritzea oso garrantzitsua da eskola liburutegiak irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako euskarri irmo izan

daitezen. Irakurmena sustatzeko berariazko plan horrek bere memoria ekonomikoa izan beharko du eta lortutako emaitzen aldiko ebaluazioa ere bai.

3) Funtsezkoa da hezkuntza prozesua eskolaren eta familien artean koodinatzea. Haien arteko harreman onak eta norabide bereko ekintzak mesedegarriak dira bai hezkuntza prozesurako bai ikasleen nortasuna eraikitzeko. Ildo horretatik jarraituz, eskola eta familiaren ekintza bateratua beharrezko da honako hauek arautzeko: portaera-arauak, bizikidetza-arauak, baloreetako hezkuntza-arauak, etab. Hori guztia egin beharko litzateke irakaskuntzaren alderdi tekniko eta profesionaletan sartu gabe, azken hauek bakarrik irakasleen ardura baitira. Hezkuntza Administrazioei eskatzen zaie beharrezkoa den guztia egin dezaten familiaren eta eskolaren arteko harremanak egoteko, parte hartzen duten guztien ordutegiak egokituz. Estatuko Eskola Kontseiluaren iritziz, haurtzaroaren garapen osoa funtsezko da. Horrexegatik, Hezkuntza Administrazioei eskatzen die lankidetza sustatzea herrietako Administrazioekin, osasun zerbitzuekin eta gizarte zerbitzu guziekin, 3 urtetik 12 urtera arteko haur guztiei arreta hobea emateko.

4) Etapa guzietako irakasleak dira edozein hezkuntza sistemaren kalitatearen faktorerik garrantzitsuena. Horrexegatik, irakasleen prestakuntzak bi oinarrizko eskakizun bete behar ditu: zientifika eta psikopedagogikoa. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ikasgaiak irakasteko berariazko tituluak ‘Boloniako Prozesua’ deituriko unibertsitateko ereduaren arabera egokitu behar dira. Hortaz, Estatuko Eskola Kontseiluaren iritziz, oso garrantzitsua da planak garatzea diagnostikoaren ebaluazioa eta irakaslegoaren etengabeko prestakuntza sustatzeko, behar profesional berriei egokiturik. Ildo beretik, honako hauek oso importanteak dira: oinarritzko gaitasunak ikasgelan praktikan jartzeko didaktika ikasktea; curriculum berrieik eskatzen dituzten gaitasunak ebaluatzeko irizpideak programatzea eta eratzea; esperientziak trukatzea, Autonomia pedagogikoa beti sustatuz ikastetxeetan ekintzak antolatzeko eta kudeatzeko. Halaber, Hezkuntza Administrazioei eskatzen zaie Laguntha Programa bat egitea lehenengo irakasten duten irakasleak laguntzeko, modu egokian suspertu dituzten irakasle-tutoreen bitartez. Era berean, Hezkuntza Ministerioari eskatzen zaio irakasleak ordezkatzen dituzten sindikatuekiko negoziazioei berriz ekiteko, Irakaskuntzaren Funtzio Publikoaren Estatutua adosteko. ELOn bildutato irakasleak aintzat hartzeari gizartearen eta laguntzari buruzko konpromisoak betetzea ahalbidetuko luke Estatutu horrek, eta baita garapen

profesionalerako sistema bat ezartzea ELGAko herrialde guztiak irakasleekin homologatzeko.

5) Hezkuntza Administrazioek sustatu eta orokor bihurtu dute bigarren hizkuntza atzerritarra ikastea, Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarrizko gaitasun maila garatzeko. Horrekin lotuta, hainbat programa ezarriko dira teknologia berriak ohiko baliabide moduan erabiltzeko. Era berean, Estatuko Eskola Kontseiluak emaitzak hobetzeko asmoz eta banakako arreta handiagoa izan dadin, hezkuntza maila horretako ratioa murriztea proposatzen du; horrela, ikasgela baikotzean 20 ikasle gehienez egongo dira, eta hortik behera hezkuntza premia bereziko ikasleak eskolatuz gero.

Bigarren Hezkuntzako Graduatura lortu gabe Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzen duen ikasle kopuru handiak neurriak hartzera behartzen gaitu zailtasunak agertzen diren momentuan, hau da, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan. Ondorioz, Hezkuntza Administrazioei gomendatzen zaie errefortzu- eta erre recuperazio- ekintzak antolatzea, ikastetxeetako eguneroko ekintzen barruan egongo direnak eta zailtasunak agertzen diren mementuan erabiltzeko adineko malgutasuna izango dutenak; alderantziz, ikasteko motibazio nahiz gaitasun handiagoa dutenei hedapen ekintzak ere eskain behar zaie. Orokorean, errefortzu- eta laguntza-ekintza guztiak kontu handiz antolatu behar dira eta ‘irakaskuntza orduen barruan’, haietako batzuk ordu espezializatuetan. Premiazkoa da irakasleak gehitzea (ikasgela/irakasle ratioa), gaur egungo erre realitatea eskasa delako irakaskuntza publikoan eta oso eskasa ikastetxe kontzertatuetan. Behar adina Orientabide Talde gehitzea ere funtsezkoa da. Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa amaitutakoan diagnostikoaren ebaluazioak balio beharko du zailtasunak aurkitzeko eta hobetzeko neurriak hartzeko. Horrela, ez litzateke ikastetxeen sailkapenik egongo eta eskolak ematen duen balio erantsia nabarmenduko litzateke, bereziki baliabide gutxieneko ikasleentzat.

Halaber, Administrazioei eskatzen zaie behar diren adineko irakasle espezializatu eta orokor gehitzea, tutoretza-ekintzei, laguntza eta errefortzu-planei eta aniztasunari begira, behar diren neurri eraginkor guztiak abian jartzeko. Hori dela eta, Estatu Kontseiluak eskatzen die Hezkuntza Administrazioei ikastetxe guztiak Orientabide Zerbitzuko eta Pegagokia Terapeutikoko behar adina espezialistak egon daitezen. Era berean eskatzen diegu, Haur Hezkuntza edota Lehen Hezkuntza irakasten den

Ikastetxe Publiko guzietan Administrazioko Langileak egon daitezen, irakaskuntzari ez dagokion lana irakaslei ez leporatzeko.

3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

1) Estatuko Kontseiluaren arabera, gure hezkuntza sistemaren arazorik larriena da Derrigorrezko Hezkuntza arrakastaz bukatzen duten ikasleak oso gutxi direla. Ahalegin handiak egin badira ere, lortutako emaitzak ez dira onak, beraz oraindik bide luzea dugu EBeko Estatuetan duten tituludunen kopurua lortu arte. Horrexegatik, Kontseiluak eskatzen die Hezkuntza Administrazioei aniztasunari ematen dioten arreta hobetzen jarritzeko Aniztasuneko Programak gehituz, integrazio printzipioak aplikatuz, aukera berdinak eta irisgarritasun unibertsala sustatzuz. Horretarako, honako hau beharrezko da: behar adina giza baliabide eta bitarteko material, Aniztasuneko Programak, hezkuntza-konpentsatzeko neurriak, irakurtzeko ekintzak, errefortzu-planak, orientabidea eta laguntza, alderdi instrumentalak sendotzea, banaketa-gelak, gaur egungo ratioak murriztea (gela bakoitzean gehienez 20 ikasle), eta ratio horiek txikiagoak izango dira premia bereziko ikasleak badaude; tutoretza ekintza, orientabide akademikoa eta profesionala, azken hori ezinbestekoa delako etapa batetik beste batera igarotzean; bokazioari buruzko orientabidea, batez ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken bi ikasturteetan, eta beriziki berariazko hezkuntza premiak dituzten ikasleen kasuetan.

Ildo beretik, iraileko lehenengo egunetan errekuperatzeko probak egitea oso komenigarria dela berretsi nahi dugu eta gure gomendioa da curriculumen malgutasuna berraztertzea hirugarren ikasturteik aurrera. Neurri konpentsatzaleak hartu behar dira ikasle guztiak euren gaitasunak ahalik eta gehien gara ditzaten hezkuntza bikaintasunari uko egin gabe. Estrategiak eta neurriak eratu behar dira hezkuntza atzerapena duten ikasleei zuzenduta edo ikasketak arrakastaz burutzeko gabeziak dituzten ikasleei zuzenduta. Horrekin lotuta, indarrean dauden errefortzuzko planak egin behar dira.

DBHko eskola porrota gertazen da Eskola Publikoetan nahiz Eskola Pribatu Konzertatueta. Horrexegatik, langile gehiago gehitu behar dira funts publikoek ordaintzen dituzten ikastetxe guzietan, publikoak nahiz pribatu konzertatuak. Irakasle gehitzeak ahalbidetuko du zailtasun eta erronkei aurre egitea, eta zailtasun

horiek berdinak dira bi ikastetxe motetan. Orientabide Sailetan profesional gehiago sartzea funtsezkoa da.

Estatuko Eskola Kontseiluak eskatzen die Hezkuntza Administrazioei zehazki garatzea oinarrizko gaitasunen irakaskuntza-curriculumak. Horretarako, Lanbide Heziketarako egin zen bezala, gaitasunen eta gaitasun mailen katalogo bat egin behar da Kalitatezko Hezkuntza lortzeko. Katalogo horiekin batera, aldaketa metodologikoa sustatu beharra dago. Aldaketa horrek ikasleen ikaskuntza bateratua eta eskolako arrakasta ziurtatuko ditu.

2) ‘Eskola porrota’ deiturikoa handiagoa da gizonezkoen artean. Ondorioz, Hezkuntza Administrazioei gomendatzen zaie berariazko planak eratzea gazteei hezkuntza eskaientza erakargarria aurkezteko. Familiak kontzientziatzeko kanpainak egin behar dira eta batez ere gizarte baztertzea jasotzeko arriskua dutenentzat ekimen bereziak antolatu. Besteak beste, oso larria da eskolara ez agertzea, eta hori gelditzeko neurriak aurkitu behar dira, hezkuntzako lehenengo ikasturteetatikk babes neurriak hartu, baliabide gutxieneko ikasleak lagundu eta eskola familiarekin elkarlanean aritu.

Hori dela medio, Hezkuntza Administrazioek *Eskolara ez Agertze Goiztiarraren Aurkako Estrategia Plana* garatu behar dute, Estatuan aplikatzeko baina Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako Hezkuntza Adminstrazioen eta beste Herri Adminsitrazioen artean koordinatua. Plan horretan gizarte erakundeek ere parte hartuko dute. Plan horrek honako oinarri hauek izango ditu: familiak laguntzea, kultura eta kirol ekipamendua, helduen ikaskuntza sustatzea eta teknologia berriak erabiltzea; baliabide horiek lan egonkor baterako sarrera erraztuko dutelako.

3) Estatuko Eskola Kontseiluak eskatzen die Hezkuntza Adminsitrazioei programazio egokia egin dezaten eskolatzea orekatua eta eraginkorra izan dadin. Horretarako ELOn aurreikusten diren mekanismoak erabili beharko dituzte eta ikasle guztiak barne hartu, etorkinak, edozein arrazoirengatik berandu eskolatzen direnak, hezkuntza premia bereziak dituztenak, eta baita ikasketak uzteko eta gizarte baztertzea pairatzeko arriskuan daudenak ere. Era berean, Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako Hezkuntza Adminstrazioei proposatzen die ekintzak egitea honako ikasle horiek motibatzeko: irakaskuntza orokorrean ikasteko arazoak dituzten ikasleak, eskola inguruneari uko egiten diotenak, oinarrizko tresna instrumentalak gutxi menperatzen dituztelako eskolara ez joateko arriskua dutenak, ikasle etorkinak, baztertutako gazteak, etab. Horiei guztiei hain akademikoak ez diren aukerak eskaini beharko litzaizkieke, baina profesionaltasuna lortzera zuzendurik.

Estatuko Eskola Kontseiluak eskatzen die Hezkuntza Administrazioei behar diren baliabideak ematea langileak gehitzeko eta irakasle/ikasle ratioak murrizteko: funts publikoek ordaindutako ikastetxe guztietaur neurriak abian jartzeko baldintza berdinekin, eta ELOk agintzen duen bezala. Hezkuntza eskaintzaren programazioari buruz eta eskolatze oreaktuari buruzko eskaintza hori bakarrik eraman daiteke aurrera ikasle guztiak arreta bera jasotzen badute, bereizketarik egin gabe ikastetxe publikoan edo kontzertatuan, hirian edo herriko eskola batean, auzo jakin batean edo hiri handiko inguruau, etab.

4) Ikasleen arrakasta lortu nahi bada, ikastetxe guztiak autonomo izan behar dute haien premien diagnostikoa egiteko, hartu behar diren neurriak garatzeko, eta biziakidetzarako planak eratzeko DBHko ikastetxeetako giroa hobetzeko asmoz. Ikastetxe bakoitzean egindako analisi zehatzetik hasita, errazagoa da irakasleen, ikastetxeen eta familien arteko elkarlana garatzea modu eraginkorragoan, tutoretzen eta eskola orientabidearen bidez. Estatuko Eskola Kontseiluak Hezkuntza Administrazioei eskatzen die Estatuko orientabide egiturak sendotzeko eta koordinatzeko.

Era berean, Plan Bateratuak garatzea beharrezkoa da ikastetxetik hurbil gizarte ekintza komunitarioak egiteko, gizarte sektoreekin eta erakundeekin koordinaturik. Plan horietan parte hartu beharko lukete eremu jakin batean lan egin duten profesionalek.

5) 2010erako helburu nagusietariko bat eskolara ez agertze goiztiarra eta gizarte bazterketa jasotzeko arriskua murritztea da. Estatuko Eskola Kontseiluak eskatzen die bai Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari bai Hezkuntza Administrazioei behar adina Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa eskaintzea. Programa hori irakatsi beharko litzateke ikastetxe guztietaur eta doan izan; halaber programa horrek Lanbide Prestakuntzako lehenengo mailako moduluak garatu beharko luke, lanbide heziketaren aniztasuna gehituz. Dena dela, DBHtik Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetara 15 urterekin igarotzeak ezohiko neurria izan behar du, eta Programa horien helburua eskolara ez agertzea sahiestea da, eta baita DBHko graduatua lortzea ere. Era berean, Hasierako Lanbide Heziketatik Erdi Mailako Berariazko Lanbide Heziketara igarotzea ahalbidetu behar da, Derrigorrez Bigarren Hezkuntza ondorengko ikasketetan tituladun kopurua handitzeko, aintzat hartuta bai inguru ekonomiko eta soziala bai benetako prestakuntza eta lan premiak.

Estatuko Eskola Kontseiluak Autonomia Erkidegoetako Hezkuntza Admnistrazioei eta Estatuko Hezkuntza Administrazioari eskatzen die aukera berdintasuneko politikak sendotzeko eta hezkuntza eskaintza handitzeko, integratzeko zaitasunak

dituzten gazteentzat zuzenduta: hezkuntza sistema utzi duten gazteentzat, prestakuntza gutxiko langileentzat, ezohiko lanetan aritzen direnentzat, etab.

4. Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

1) Estatu Kontseiluak eskatzen die Hezkuntza Administrazioei behar diren neurriak hartzeko, 18 eta 24 urte bitarteko gazte tituludunen tasa %63,1etik %85era igotzeko, helburu europarra betetzeko. Besteak beste, neurri hauek hartu behar dira: Derrigorrezko Hezkuntzaren ondorengo ikasketei buruzko informazioa zabaltzea; zuzeneko, urrutiko eta helduentzako prestakuntza eskaintzak gehitzea. Neurri horiek titulurik gabeko 16 eta 24 urte bitarteko gazteentzat zuzenduta egon behar dute.

